



HEZKUNTZA SAILEKO LAN-LEGEPEKO IRAKASLE ETA HEZITZAILEEN HITZARMEN KOLEKTIBOAREN NEGOIZAZIO MAHAIAREN AKORDIOA

Vitoria-Gasteiz, 2018ko apirilaren 13a

Hezkuntza Sailak eta LAB, STEILAS eta CCOO sindikatuek azken hilabeteetan garatu den negoziazioaren emaitza gisa, dokumentu honekiko adostasuna adierazi nahi dute eta berau sinatzea adostu.

Horrela, bada,

HONAKO HAU AZALTZEN DUTE:

2004ko ekainaren 17an, Lan eta Gizarte Segurantzako zuzendariaren Ebazpena argitaratu zen; horren bidez, *Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko lan-legepeko irakasle eta hezitzaileentzako hitzarmen kolektiboa* erregistratu eta argitaratu zen.

Hitzarmen hori sinatu zenetik zenbait urte igaro dira eta aldeek ulertzen dute bertan hitzarmenean jaso diren hainbat konturi berriz heldu behar zaiela, dela zaharkituta geratu direlako, dela berrikusi eta eguneratu behar direlako. Azken hileotan, nahiz eta Hezkuntza Saileko lan-legepeko irakasle eta hezitzaileen lan-baldintzei buruzko akordio globalik itxi ez den, zenbait negoziazio-mahai burutu dira, eta negoziazioak egin dira zerbitzu publikoetan eta akordio horren eremuko langileen lan-baldintzetan eta ikasleei eskaini beharreko hezkuntza-zerbitzuan funtsezko hobekuntza eta aitortza dakartzaten aldaketa puntualak lortzeko.

Zehazki, honako egun hauetan egin dira negoziazio-mahaiak:

- 2017ko ekainaren 28a
- 2017ko irailaren 28a
- 2017ko abenduaren 21a
- 2018ko otsailaren 7a

Aldeen borondatea da elkar ulertzeko bideei eustea, horrela zerbitzua normaltasunez eskaintzea ahalbidetuz, eta beti ere ulertuta horretarako beharrezkoa dela orain arteko lan-baldintzak hobetzea.

Esparru horretan eta negoziazio horien ondorioz, akordioa lortu da dokumentu bat sinatzeko; bertan, zenbait alderdi jaso dira, kolektibo horren lan-baldintzei buruzko hitzarmen global berria lortzeko abiapuntu gisa, horrek zerbitzu publikoetan eta akordio horren eremuko langileen lan-baldintzetan kalitatea hobea izan dadin laguntzeko.



Hitzarmen honetan jasotzen diren akordioek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko lan-legepeko irakasle eta hezitzaileentzako hitzarmen kolektiboan aldaketak egin beharra ekarriko du zenbait ataletan, ondoko jardun-ildo nagusi batzuetan zehazten den moduan. Xede horretarako, berariaz ezarrita dagoen erregelamenduzko prozedura izapidetuko da.

Ondorioz, premisa eta helburu horiekin, sinatzaileek honako akordio hau sinatu dute:

AKORDIOA

Akordio honen helburua da Hezkuntza Saileko Heziketa Bereziko lan-legepeko hezitzaileen hezkuntza-zerbitzuaren kalitatea eta langile horien lan-baldintzak hobetzea, bai eta akordioa bera oinarri eta abiapuntu izatea ere, hitzarmen kolektibo berria negoziatzeko.

Bertan jaso diren xedeak betetzeko, jardun-ildo nagusi gisa honako hauek ezarri dira:

1. Lan Eskaintza Publikoa eta behin-behinekotasuna.

Hezkuntza Sailak behin-behinekotasuna ahalik eta gehien jaistearen helburua berea egiten du.

2019. urtean 260 lanpostu inguru eskainiko dira Lan Eskaintza Publikoaren bidez, hau da, une horretan Lanpostu-zerrendetan pertsonal finkoak bete gabe egongo diren jardunaldi osoko lanpostu guztiak.

Xede horretarako, alde sozialarekin lan-eskaintza publikoaren alderdi desberdinen inguruko negoziazioa burutzeaz gainera, Jaurlaritzak araubide guztiak agortuko ditu, prozesua segurtasun juridiko osoz gara dadin.

2. Lanpostu-zerrendak eta hezitzaileen plantilak egokitzea

Hezkuntza Sailak, urtero, eta alde sozialarekin negoziatu ondoren, estrukturaltzat har daitezkeen lanpostuak lanpostu-zerrendetan azaleratzearen konpromisoa hartzen du.

Egokitzapen horri eutsiz, eta jadanik 2018rako Aurrekontuen Legean jaso ondoren, hezkuntza-laguntzako espezialisten 50 lanpostu azaleratuko dira, dekretu bidez tramitatuko den lanpostu-zerrendaren aldaketa burutuz.

Hezkuntza Sailak, bestalde, urtero proposatuko du hezitzaileen plantillen egokitzapena, behar bereziak dituzten ikasleen matrikulazioak eta hezkuntza-sistemaren beharren arabera.



3. Interinitate-kontratuak

Lanpostuen zerrendako lanpostu guztiak interinitate-kontratu bidez beteko dira. Horrek egonkortasun handiagoa ekarriko du, bai langileentzat, bai sistemarentzat.

Gainerako lanpostuak, matrikulazioen gorabeheren behin-behinekotasunari lotuak, obra edo zerbitzuko kontratu bidez beteko dira.

Ahal den neurrian eta beharren arabera aukera baldin badago, kontratu partzialen orduak batu eta kontratu osoak bihurtzen saiatuko da Hezkuntza Saila.

Gainera, ikasturte hasierako behar berriei erantzuteko, irailean eta urrian zehar ikasturte osorako egiten diren obra edo zerbitzu kontratuak abuztuaren 31 artekoak izango dira.

Mahai Parekidean azertu eta negoziatuko da kontratu-mota horien guztien aplikaziotik eratortzen den kasuistikari nola erantzun, akordiorik zabalena bilatuz eta beti ere lan-araudiak eskaintzen duen esparruaren barruan.

4. Hezitzaile-kategoria batzuen ordainsarien egokitzea

Gaur indarrean dagoen Heziketa Bereziko hezitzaileen hitzarmena 2003an izenpetu zenetik hona, Fisioterapeuta, Lan-terapeuta eta Gizarte-langileen egitekoak eta jarduerak Eskola Inklusiboaren printzipio eta lan-ildoetara egokituz joan dira.

Hori eta maisu-maistren titulazio-maila eta ordutegi berdina dutela oinarri hartuz, kategoria horien ordainsariak maisu-maistren parekoak ezartzeko aurreakordioa erdietsi zen alde soziala eta Hezkuntza Sailaren artean 2011n, gero gauzatzera ailegatuko ez zena.

Horiek horrela, eta oztopo juridikorik egon ezean, Fisioterapeuta, Lan-terapeuta eta Gizarte-langileen ordainsariak maisu-maistrenekin parekatuko dira.

Neurri honek 2018ko urtarrilaren 1eko eraginak lortze aldera ahaleginduko da Hezkuntza Saila.

5. Ordezkoen zerrendak

Hezitzaile izateko prestakuntza eta titulazioa eskuratu duten guztiak ordezkoen zerrendetan sartzeko aukera izan dezaten, honelako neurriak hartuko dira hezitzaileen ordezko zerrenden kudeaketa dela-eta:



- Hezitzaileen LEP bat aurrikusita dagoen ikasturtean, LEP horretarako aurrikusten diren espezialitate edo kategoria guztietako zerrendak aurrez irekitzea
- Ezohiko irekierak egiten direnean beharrak daudelako, zerrenda horiek irekita uztea

Puntu honetako akordioak hitzarmenaren aldaketa dakar ondoko atalean: III. eranskina: Hezkuntza Bereziko hezitzaileak ordezkatzeko araudia

Neurri hauek ikasturte berriarekin jarriko lirateke indarrean, hau da, 2018/19an.

6. Gizarte-fondoa

Gizarte-fondoa ezarriko da Hezkuntza Bereziko hezitzaileentzat, 20.000 €-ko kopuruaz hornitua.

Behin fondoa eratzen denean, mahai parekidean zehaztuko dira aintzat hartuko diren kontzeptuak, kopuruak, betekizunak, baldintzak eta diru-laguntzak banatzeko irizpideak.

Puntu honetako akordioak hitzarmenaren aldaketa dakar ondoko atalean: II. Kapituluak: Gizarte-laguntzak. Artikulu berri bat: Gizarte-fondoa.

Lehen deialdia 2019an izango da, eta 2018an egindako gastuak aintzat hartuko ditu.

7. Errelebo-kontratua

Formula hau nola erabili berrikusiko da, Administrazioak aukera hau orokortzea posible egitean.

8. Lan-osasuna eta segurtasuna

Hezkuntza Sailak, Lan Arriskuen Prebentzio Legeak xedatzen duenari jarraiki, eta gaur egun kasuan-kasuan abian jartzen dituen neurri efektiboak eutsiz, konpromisoa hartzen du osasun-arazoengatik lanpostu-egokitzapenak ahalbidetzeko bideak agortuko ditu.

Mahai parekidean aztertu egingo dira osasun-arazoengatik arriskupean egon litezkeen langileentzat abia daitezkeen neurriak eta prozedurak, Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzuaren partaidetzaz, eta beti ere berme juridikoak.

HEZKUNTZA SAILA
HEZKUNTZA BEREZIKO HEZITZAILEAK ORDEZKATZEKO ARAUDIA
URBITATTE, 4 - 48001 - BILBAO

HEZKUNTZA SAILA
HEZKUNTZA BEREZIKO HEZITZAILEAK ORDEZKATZEKO ARAUDIA
URBITATTE, 4 - 48001 - BILBAO
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

HEZKUNTZA SAILA
HEZKUNTZA BEREZIKO HEZITZAILEAK ORDEZKATZEKO ARAUDIA
URBITATTE, 4 - 48001 - BILBAO
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



9. Prestakuntza eta Euskalduntzea

Hezkuntza Sailaren Prest-Gara eta IRALE programetan Heziketa Bereziko hezitzaileek parte hartu ahal izango dute, bai lan-legepeko finkoak direnek, bai eta lan-legepeko aldi baterakoek ere, ikasturte osorako kontratua baldin badute.

Programa horietako ikastaroen eskaintza, modalitateak, parte hartzeko baldintzak eta ikasketarien kupoak, besteak beste, ohiko prozeduraz ebatziko ditu Hezkuntza Sailak sailburuaren Agindu baten bitartez.

Berriazko prestakuntza Berritzeguneez antolatu eta bermatuko dute.

Aurrera begira, Mahai Parekidean aztertuko da Prest-Gara programan hezitzaileek ikastaro gehiagotan parte hartzeko aukera.

10. Hezkuntza Laguntzako Espezialisten jardunaldia

Urteko jardunaldia: indarrean dagoena mantentzen da. Berriazko prestakuntza-orduak urteko jardunaldiko ordu-kopuruaren barruan konputatuko dira.

Asteko jardunaldia gehienez 37,5 ordukoa izango da: horren barruan hartuko dira arreta zuzeneko orduak, berritzeguneko eta eskolako koordinazioa eta materialen prestaketarako denbora.

Bestalde, eta aurreko paragrafoan esandakoaren harira, Lan Hitzarmenaren 11. artikuluan jasotakoa ekartzen da hona: 11. artikulua.- Plantilla. Administrazioak eta sindikatuek hezitzaileen plantilla hauek aztertuko dituzte, hezkuntza-sistemako egitura-beharrak kontuan hartuta, 35 orduko lanaldia eta lanarekin lotutako neurri buruz Mahai Nagusiak emandako erabakiarekin bat datozen ekintzak susta daitezzen.

Zerbitzuaren kalitatearen eta langilearen ongizatearen aldera, eguneko arreta zuzena 6 ordukoa izango da gehienez. Ikastetxearen antolakuntza ahalbidetzarren, eta 6 orduko arreta zuzen hori bideratzea ezinezkoa denean, 30 orduko arreta zuzena astean egokituko da. Garraioa eta jantoki-zerbitzuko orduak arreta zuzentzat hartuko dira.

Koordinazio-orduen baitan, zuzendaritzak ahalbidetu egingo du hezitzaileen parte-hartzea ikastetxeen klaustro-saioetan, koordinazioa hobetu eta hezitzaileen integrazioa bermatzeko, dena ere eskola inklusiboaren printzipioen mesedetan, indarrean dagoen Lan Hitzarmenak dioen bezala.

Jardunaldi berriaren ezarpenaren ondorioak eta sor daitezkeen gora-beherak heziketa bereziko profesionalak, sindikatuetako ordezkariak eta Hezkuntza Saileko teknikariak osotutako mahai teknikoetan aztertuko dira, eta Mahai Parekidean negoziatuko dira. Jardunaldi berria 2018-19 ikasturtean ezarriko da.



Puntu honetako akordioak hitzarmenaren aldaketa dakar ondoko tituluan, kapituluan eta artikuluetan: Hirugarren titulua: Lanaldia eta oporrak / I. kapitulua: Lanaldia / 17. artikulua: Lanaldia.

11. Garraioa

Ikasle guztiak, heziketa-premia bereziak izan edo ez, hartuko dira kontuan garraioa begiraleen ratioak kalkulatzekoan.

Oro har, espezialistek ez dute etxetik ikastetxera eta ikastetxetik etxerako garraioan interbentziorik izango, eskola-eremutik kanpo baitago. Interbentzio hori bakarrik gertatuko da ikasleak autonomia-programa bat esleituta duenean, denbora baterako eta ebaluazioari lotua.

Kasua kasuko autonomia-programa horien xehetasunak Berritzeguneetako eta ikastetxeko Heziketa Bereziko aholkulariek ezarriko dituzte.

12. Jantokia

Ikasle guztiak, heziketa-premia bereziak izan edo ez, hartuko dira kontuan jantoki zerbitzuko begiraleen ratioak kalkulatzekoan.

Eskola Inklusiboaren ikuspegitik, jantokia eremu hezitzailea den aldetik, bai jangelan bai patio zaintzan, Hezkuntza bereziko ikasleekiko espezialisten interbentzioa beti egongo da autonomia-programa pertsonal edota sozial bati lotuta.

Jantoki-zerbitzuan arreta zuzena duen espezialistak ordubeteko tarte izango du bere bazkarirako; ordu hori lan-ordutzat hartua izango da.

SEGIMENDU BATZORDEA

Administrazioak eta Akordio hau sinatu duten sindikatuek Segimendu Batzordea eratzen dute; aipatutako erakundeen ordezkagaitasunaren proportzio bera zainduko da, eta mahai parekidean jarraitzen den ohiko prozedura erabiliko da.


Batzorde horrek hitzartutakoa interpretatzeko, aztertzeko, jarraipena egiteko eta zaintzeko eginkizunak izango ditu, eta akordioan jasotzen diren puntuak zehazteko ardura hartzen du.


**AZKEN XEDAPENA**


Akordio honen alde sinatzaileek adierazten dute elkarriketan eta negoziazioan sakontzeko borondatea dutela, tresna egokiak baitira administrazioaren eta erakunde sindikalen arteko harremanak antolatzeko eta negoziazio kolektiboa fede onaren, elkarrenganako leialtasunaren eta lankidetzaren printzipioetan oinarritzeko. Horrela, negoziazio-prozesuen bidez, eraginkortasun handiagoa lortu behar da hezkuntza-administrazioaren funtzionamenduan, eta zerbitzu publikoetan kalitatea hobetzea lortuko da.


Akordio honetan jaso diren xedapenak lan-legepeko irakasle eta hezitzaileen hitzarmen kolektiboaren testuan sartzeko izapideak egingo dira.

Akordioaren punturen bat beteko ez balitz, Mahai Parekidean jakinaraziko lirateke desadostasun guztiak. Bertan ados jartzen ez bada, bi aldeek posible diren bitartekaritza prozesuak erabiliko dituzte.


HEZKUNTZA SAILA
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN


LAB
LAB
Irakaskuntza


STEILAS


irakaskuntza
CCOO
Uribitarte, 4 - 48001 - BILBAO

